

DANIELEN ISTORIA

Daniel 19 urteko gaztea da, Kamerungoa, txikitatik umezurtza. 12 urterekin, eskola utzi eta fruta saltzen hasi behar izan zuen, bere izebari laguntzeko, gaixo baitzegoen. **13 urterekin, Europara etortzea erabaki zuen**, ikasteko, futboleko jokatzeko, eta etorkizun hobearekin izateko.

Afrika zeharkatu zuen, bakar-bakarrik, ahal zuenean lan eginez, bizirauteko, eta azkenean, sufrimendu askoren ostean, itsasarte zeharkatzea lortu zuen. **Hiru hilabete falta zitzaizkion 15 urte betetzeko, azkenean Espainiara iritsi zenean.**

Zailtasun askoren ostean, babes-sisteman sartzea lortu zuen, autonomia-erkidego baten babespean, eta bere ametsa bete ahal izan zuen: ikasten hasi zen. Lanbide-heziketako oinarritzko ziklo bat egin zuen, eta, horri esker, DBHko gradudun titulua lortu zuen. Gero, izena eman zuen gradu ertaineko ziklo batean, eta futbol talde bateko jubenilen taldean jokatzeko lortu zuen.



DANIEL



Bere bizitza berak amesten zuenaren antza hartzen hasi zen...

Helmugara iristen ari zen, hamaika sufrimendu eta gabezia nozitu ondoren, izaba habian utzita Afrikako kontinentea zeharkatzeko.

Bazirudien dena ongi zihoala, baina, halako batean, bizilekutatzen zuten zentroan jakinarazi zioten **handik hilabete batera, 18 urte betetzeko, administrazioak kalean utziko zuela, lan-baimenik eta osasun-txartelirik gabe.**

Sekulako ezustea izan zen Danielentzat: berriro ere bakarrik zegoen, babesgabe, bizibidea aurrera ateratzeko legez lan egiteko aukerarik gabe. Ikusia zuen bere kide batzuei hori gertatu zitzaizela adin-nagusitasunera heltzean, baina zentrokoek beti jartzen zuten aitzakiaren bat: «hori ez da ongi portatzen; horrek ez ditu nota onak ateratzen...». Hori ez zen Danielen kasua; horregatik, beti uste izan zuen berari ez zitzaizela horrelakorik gertatuko.

18 urte bete zituen, eta bere oparia polizia nazionalaren esku gelditzea izan zen, eginbideak hasi zituzten haren administrazio-egoera irregularragatik. Lasai –esaten zioten–, zure kasuan, zigorra isun bat izaten da ia beti, ez herrialdeetik kanporatzea... Baina berak gauza bakarra zuen gogoan: futboleko jokatzeari utzi beharko zion, ikasketak utzi beharko zituen, ezingo zituen hurrengo asteko azterketak egin, eta lagun eta adiskideak ez zituela berriz ere ikusiko.

Bat-batean, Afrikan zegoenean baino okerrago zegoen. Bakarrik zegoen, eta ez zekien lo non egingo zuen, ezta zer jango zuen... bizibidea nola aterako zuen aurrera.

EGIN ZURE HITZ-HODEIA

Aukeratu hitz batzuk ikusi berri duzun istorioa eta iradokitzen dizkizun ideia eta sentimenduak laburbiltzeko. Hona hemen hiru adibide.

ADINGABEA

BAKARDADEA

BABESA



ISTORIOA ULERTZEKO **GAKO BATZUK**

- Legeriaren arabera, , **inoren kargura ez dauden adingabe atzerritarren kasuan, «adingabearen interes gorena»** (1/1996 Lege Organikoaren 2. artikulua 1/1996 Lege Organikoa, Adingabearen Babes Juridikoari buruzkoa, Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea partzialki aldatzen duena). Dena den, maiz gertatzen da aurkakoa: [Administrazio Publikoek adingabeentzat baldintza deitoragarriak edo oso desegokiak dituzten zentroetan egiten diete harrera haur horiei](#), edo [harrera egiteko errezeloa ere izaten dute](#).
- **Adingabe horietako gehienak irregulartasun-egoeran gelditzen dira 18 urte betetzean. Administrazioak**, Adingabeen Babesari buruzko Legearen (Adingabearen Babes Juridikoari buruzko 1/1996 Lege Organikoaren 10. artikulua), **behartuta daude adingabeek behar duten dokumentazioa kudeatzera**, pasaportetik edo egoitza-baimeneraino, bai adingabeak direnean, bai 18 urte dituztenean. **Dena den, hori ez da betetzen.** [Espainiako Defensor del Pueblo-k](#).
- Irregulartasun-egoeran daudenean, **18 urteko pertsona horiek ez dute osasun-txartelik, ez eta ikasten jarraitzeko aukerarik ere; beraien jatorrizko herrialdera estraditatu ditzakete.**
- **Babespean egoteari utziz gero, gazteek oztopo ia gaindiezinei egin behar diete aurre. Ez dute beren familia alboan, ez eta laguntza-sarerik ere.** Gehienetan, informaziorik gabe edo informazio gutxirekin uzten dute Babes-Sistema. Zailtasun handiak izaten dituzte etxebizitza duin bat eskuratzeko. Atzerritar Legearen arabera, «paperekin» irteten direnek ezin dute lanik eskuratu; izan ere, haien egoitza-baimena behin-behinekoa da, eta ez die lan egiteko baimenik ematen. Neurri aringarri gisa, 2020ko martxoaz geroztik, Migrazioetako Estatu Idazkaritzaren jarraibide batek, 16 eta 18 urte bitarteko adingabeei lan egiteko gaikuntza eman die ([Nadie Sin Futuro](#)). Xedapen hori lagungarria izan daiteke, baina ez die etorkizuna bermatuko adinez nagusi izan ondoren
- **Eta non daude emakumeak?** Gizarte-erakunde espezializatuen iritziz, autonomia-erkidego baten babespean egondako neskek ikusezin bilakatzearen eta haien arrastoa galtzearen arrazoiak, zerikusia du emakumezkoen salerosketarekin eta prostituzio-sareekin.
- [Bada babespean egondako gazteen elkarte bat.](#)

GURE ERROETAN

Gogoratzeko moduko zenbait aipu:

- “Haur hau bezalako bat, nire izenean onartzen duenak, neu onartzen nau; eta ni onartzen nauenak ez nau ni onartzen, bidali nauen hura baizik.” (Mk. 9, 37).
- “Estatuek eskubidea dute migrazio-fluxuak kudeatzeko eta nazioaren ongia babesteko, eskubide horrek bat etorri behar du emigratzaile adingabeen egoera konpontzeko eta legezatzeko betebeharrarekin; guztiz errespetatu behar da haien duintasuna, eta haien premiak asetzeko ahalegina egin behar da, bakarrik baldin badaude.” Frantzisko Aita Santuaren Mezua, Migratzaileen eta Errefuxiatuen 2017ko Munduko Jardunaldirako. (2017ko Urtarrilaren 15ean)

TALDEAN EZTABAIDATZEKO GALDERAK

- > **Zer eragiten dizu bakarrik bidaiatzen duen haur batek,** inor gabe beste herrialde batera iristen denak?
- > Zure herrian ba al da kalean bakarrik bizi den neska-mutilik? Maiz egiten al duzu topo haiekin? Zer pentsatzen duzu?
- > Gure estatuak **babesik gabe uzten ditu pertsonak 18 urte betetzen dituztenean.** Zer pentsatzen duzu horrelako Estatu bati buruz?
- > Zure ustez, neska-mutil horiek mehatxu al dira gure auzo eta komunitateentzat?
- > **Diskurtso politiko batzuek kriminalizatu egiten dituzte babespean egondako gazteak,** eta beldurra edo mesfidantza zabaltzen dute. **Zer pentsatzen duzu diskurtso politiko horietaz?**
- > Zer **alternatiba** bururatzen zaizkizu, edo zaizkigu talde gisa?

